

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Sustapenak hobekuntza bat lizitaziora atera du N-121 errepidearen eta Barasoain-Garinoaingo zeharbidearen arteko elkargunean

*396.910 euroko aurrekontua duten lanek itxaroteko erdiko errei bat sortuko dute birak errazteko eta ikuspena hobetzeko*

Lunes, 29 de junio de 2015

Sustapen Departamentuak hobekuntza-proiektu bat [lizitazio](#)ra atera du gaur N-121 errepidearen (Iruña-Tutera), 26,480 kilometro-puntua, eta NA-8601 errepidearen (Garinoaingo sarbidea) arteko elkargunean. Lizitaziora atera da komunitateko atalasearen azpitik egindako prozedura irekiaren bidez eta esleipen-irizpidea eskaintza onuragarriena izanik. 396.910 euroko aurrekontua du, eta haren idazketa Cintec S.L. enpresari enkargatu zitzaion. Lanak egikaritzeko epea bi hilabetekoa da.



Errepide bateko obrak.

Proiektuak N-121 errepidean (Iruña-Tutera) hautemandako arriskugarritasun puntu bat hobetuko du, 26.5 kilometroa NA-8601 errepidearekin egiten duen elkargunean (Barasoain-Garinoain zeharbidea). Arazoa sortzen da tamaina handiko ibilgailuak (astunak eta autobusak) NA-8601 errepidetik N-121 errepideko hegoaldeko noranzkoan (Tutera) sartzen direnean. NA-8601 errepidetik iparraldeko noranzkoan (Iruña) sartzeko egiten den bira ibilgailu arinek bakarrik egin dezakete; astunek ezin dute egin lekurik ez dagoelako.

Oso itxia den "V" formako elkargunearen osaerak dakar, ibilgailu astunak, autobusak bereziki, N-121 errepidearen paraleloan jarri behar izatea, elkargune guztia luzetara okupatu behar izatea. Luzetarako posizio horretan, gidariak ezin ditu behar bezala ikusi N-121 errepideko iparraldetik datozen ibilgailuak; gainera, hegoaldetik datorren zirkulazioan arreta jarri behar du.

### Onartutako irtenbidea

Lizitaziora ateratako proiektuak elkargunean jarduteko irtenbidea jasotzen du itxaroteko erdialdeko errei bat sortuz (azelerazio-erreia eta itxarote-erreia) N-121 errepidean hegoalderako errepidera sartzeko

(Tutera), eta dezelerazio-errei bat N-121etik NA-6801 errepidean zuzenean sartzeko. Erdialdeko errei horrekin, gidariak ezkeraldera biratu ahalko du edo N-121 errepidean sartu bi fasetan: alde batetik, iparraldetik datorren zirkulazioaz baino ez da arduratuko, eta erdialdeko erreian kokatuko da; behin maniobra egin ondoren, N-121 errepideko erreian jarriko da, hegoaldera, erdialdeko erreian azeleratuz eta jadanik hegoaldeko zirkulazioaz bakarrik kezkatuz.

Hura gauzatzeko, ondorengo lanak egingo dira: N-121errepidea eta N-8601 errepideko elkargunea zabalduko dira, harik eta erdialdeko errei berria eta dezelerazio-errei berria lortu arte; kaltetutako nekazaritza-bidearen sarbide berria eraikitzea; N-121 errepide gurutzatzen duen fabrikako obra egikaritzea (800 milimetroko hodia), eta sestra aldaketak kaltetzen duena; luzetarako drainatzea bide-zati guztian "zapalgarriak diren" arekak eginez drainatze sakonarekin; kaltetutako bide-zatiaren seinaleztatze horizontal eta bertikala, eta 2,50 metro luze eta 1 metro zabaleko harri-lubetaren horma egikaritzea, ezpondaren lur-erazketan kalte handiago ez izateko eta haren egonkortasuna hobetzeko.